

Ihesak



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

EAEn ez dakit. Nafarroan bat etorri ohi dira izena eta izana. Erran nahi baita, grazia euskarazkoa duen gaztearekin euskaraz egin ahal izateko zenbaki franko ditugu estres linguistikoa- ren loterian. Gisa berean, euskal izena duen heldua gutienez ere euskaltzale gertatzeko aukerak biderkatzen dizkigu zoriak. Erlazioa ez da, dena dela, matematikoa.

Xuriñe Peñas Eguesibarko alkatea aski famatu da azken asteetan bere udalaren osoko bilkura batean egindako adierazpenengatik. Zehatz-mehatz, euskarazko ekitaldiak erdaldunendako “diskriminatzailetzat” jo ditu emakume horrek, Iruñea ondoko udalerrri horretako zinegotzi guztien aitzinean. Minutu bat lehenago, euskaraz badakiela adierazia zuen politikariak.

Ez dut Peñas andrea ezagutzen. Hortaz, baieztapen hori ezeztatzeko datu- rik ez dut. Nolanahi ere, ez dago hain garbi horrek –euskaraz badakielakoak– zehazki zer erran nahi duen. Ezagutza delakoaren barnean zein kasuistika za- bala dagoen –kasik hutsetik abantzu in- finituraino– kostata barneratu du gure soziolinguistikak. Jakitate kontu lausoak alde batera utzirik, adierazgarriagoa li-

Isil-misilka baizik ez ditugu aipatzen, baina ikasketak euskara gorrotatzen bukatzen dituzten ikasleen kasuak ez dira hain bakanak

tzaiguke Xuriñe Peñasek euskararekin zer harreman (izan) duen argitzea. As- marena sobera bihurrikatu gabe irudi- ka dezakegu aita-ama duela lau hamar- kada nola edo hala euskaltzale batzuei zor diela izena, baita, imajinatzen segitu- ta, euskarari loturiko irakaskuntza ere. D ereduak noraino euskaldundu zuen susmatu baizik ez dugu egiten ahal; ha- laber, noraino euskaltzaletu zuen. Isil- misilka baizik ez ditugu aipatzen, baina ikasketak euskara gorrotatzen bukatzen dituzten ikasleen kasuak ez dira hain ba-

kanak, ez Foru Komunitatean ezta Foru Komunitatetik kanpo ere, eta Xuriñere- nean hala izan ez balitz ere, milaka dira Euskal Herri osoan euskararen azken igurtzia azken eskola egunarekin jaso- tzen duten haurrak. Hortik goitikoak au- rreikusgarriak dira: lagunarte erdaldun eta erdaltzalea euskararik gabeko ingu- ru profesionalean. Nahi baino ohikoago- ko istorioa.

Ez ditugu denak gureganatzen, ezta gureganatzen ditugun guztiak atxikitzen ere. *Berria* egunkariak azken inkesta soziolinguistikoa emaitzak aztertu berri ditu lurraldez lurralde. Nafarroari dagokionez, datu batek atentzioa eman zion kazetariari: gazteak adin talderik euskaldunena izanda, euskararekiko atxikimendu tikiena duena ere bada. Zehatz-mehatz, 16-24 urte artekoen multzoan, %28k egiten dute ongi eus- karaz, baina %27,2 baizik ez daude eus- kara sustatzearen alde. Euskaraz pat- talago dabiltzanen edo batera egiten ez dutenen artean euskaltzaleren bat –bat bederen!– izanen dela uste izanik, gar- biago antzematen zaio euskarak eta eus- kaltzaletasunak gure begi parean paira- tzen dituzten ihesen tamainari.

Partida zaila dugu hemen. ●



32 €



10 €



28 €

ARGIA Azoka

azoka.argia.eus

(+34) 943 37 15 45